

Txindokiko Dama

Ixabel Millet-ek kontatua

Txindoki mendian, haitzulo handi batean, Marik zuen haren bizilekuetako bat. Herriko jendeak kontatzen zuen kobazuloa urrez egina zegoela, murrak ez ezik, altzariak ere. Mari zazpi urtean behin bertaratzen zen.

Erraza zen haren etorrera ikustea, Marik zerua zeharkatzen zuenean, zaparrada hasten zen. Egunsentian zerua garbi eta Txindoki mendiaren tontorrean laino bat zegoen.

Hura ikustean, herriko jendeak zioten alaitsu:

- Marik labea piztu du! Marik labea piztu du!

Herritar guztiak poz-pez zeuden Mari bertan zegoen bitartean babesturik izango zirelako. Behin batean, baserritar batentzat lan egiten zuen artzain batek artaldea hartu eta Txindoki mendian gora eraman zuen. Egun argitsua zen, eguzkia dir-dir, eta neska belardian etzan zen. Etxerako bidea hartzeko garaia heldu zenean, neska ardiak biltzen hasi zen.

- Bat, bi, hiru... hemezortzi, hemeretzi... Ene! Bat falta zait! Ene, zer esango du ardi jabeak?

Eta galdutako ardia deitzen hasi zen:

- Beltxa! Beltxa!

Erantzunik ez. Orduan, Txindoki mendi gaina begiratzuz:

- Tontorrera igo ote da ardi hori?

Neska, bere adorea bilduz, mendian gora abiatu zen. Herrian esaten zen Mari Txindoki mendian zegoen bitartean hobe zela hara ez igotzea, batzuk ez baitzirela inoiz jaitsi. Baina dena trankil zegoen eta artzaina lasaitu egin zen. Halako batean, urrutitik entzun zuen:

- Bee! Bee! Bee!

Hurbildu eta hor zegoen bere ardia, haitzulo baten ahoan.

Ondoan, andre oso ederra zegoen. Hain zen ederra, ezen neska aho zabalik gelditu baitzen. Orduan, andereak erran zion:

- Hor geldirik gelditu behar zara?

Neska mutu gelditu zen. Orduan, andereak:

- Ez ote dakizu mintzatzen? Ez duzu beldurrik izan behar. Ni Mari naiz eta haitzulo hau nire etxea da.

- Nik Graxiana dut izena. -neskak erantzun.

- Eta zure familia? -Damak, berriz.


- Ez dut familiarik. Baserri batean egiten dut lan eta bertan bizi naiz.

- Eta ardiak? Zureak dira?

- Ez, nik ez dut ardirik. Baserritarrarenak dira.

Orduan, irriño bat egin eta Marik gehitu zuen:

- Begira, Graxiana. Laguntzaile bat behar dut eta, nahi baduzu, gelditu ahal zara nirekin. Gauza anitz ikasiko dituzu nirekin: landareak bereizten, edabeak prestatzen, ukenduak sortzen, ehuntzen, baita animalien hizkera ere. Eta, jakina, denboraldia bukatzean ongi ordainduko dizut eta etxera joan ahalko zara.



Graxianak ez du asko pentsatu behar izan.

- Ados, zurekin geratuko naiz, Mari. Milesker.

Graxiana Damarekin geratu zen Txindokiko haitzuloan, denetarik arreta handiz eta gogo biziz ikasten.

Zazpi urte igaro ostean, horrela hitz egin zion Marik:

- Graxiana, prestu eta leial egon zara urte hauetan, eta orain prest zaude. Nik joan behar dut eta, erran bezala, ordainduko dizut. Tori! Hona hemen zure ordainsaria.

Graxiana eskua luzatu eta Marik ikatz zati bat eman zion erranez:

- Agur, Graxiana. Banoa. Ongi ibili. Eta zaindu zeure burua!

Inork ez zuen ikusi Mari joaten, baina herriko guztiek zaldi zuri hegalaria ikusi zuten urruntzen.

Artzaina herrirantz abiatu zen, eskuari tinko begira.

- Ikatz puska bat! Opari bitxia!

Baina kobazulotik urrundu ahala, zerbait izugarria gertatu zen: ikatz zatia urre bihurtu zen!

Bai, ongi entzun duzue: urre bihurtu zen!

Arin-arin menditik behera, herrira heldu zen. Hilik zegoela pentsatzen zuten denek. Orduan, Graxianak gertatutako guztia kontatu zien eta urrearekin ardiak eta etxea erosi zuen, leku baztertu eta lasai batean.

Handik aurrera, arazo bat zutenean, Graxiana ikustera joaten omen zen herriko jendea, Marirekin ikasi zuenari esker lagunduko zielakoan. Eta askotan, lortzen omen zuen Graxianak haien minak arintzen. Beraz, Mariren zerbitzuan jarraitu zuen, haren mundua eta haren misterioak. Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan.